

Oihana Kortazar eta Ionut Zinca irabazle Zeanurin

11. orrialdea

Areatzako Euskal Jaia

"Herri kirolak, antxinako jokoak eta jantzak" izango da aurtengo Areatzako Euskal Jaiaren gaia. Hilaren 20an, Arratiako nesken futbol taldeari omenaldia egingo deusie Areatzan, azokea be egongo da, artisauak, herri kirol erakusketea, gaztain erreak, mikologia jardunaldia, odol emoileai omenalditoxa... 13. orrialdea



Mendi Amesgarrien proiektzino zikloa hasiko da 25ean

10. orrialdea

begitu ^{TOKIKOM} 10 urte

arratia ubide zeberio

172

2012ko urri bigarrenaren 16a
hamabostekaria
www.begitu.org

Goi mailako kirolariak Zeanurin

Hilaren 13an, mundu mailan dabizen goi mailako lau kirolari batu ziran Zeanurin "Emakumea eta kirola" gaiaren gainean berba egiteko.

Maider Unda burukalaria, London-eko Joko Olinpikoetan brontzeko domina lortu ebana; Oihana Kortazar mendi lasterketaria, munduko txapelduna eta bezperan, Zeanurin be, Gorbeia Suzien Eguzkilore Sari Nagusia mendi lasterketea irabazi ebana; Naia Alzola txirindularia, orain ziklo-krosean dabilena baina fondoko eskia eta neguko triatloia be egin izan dauana eta Irati Anda eskalatzaila Espainia eta Euskal Herriko txapelduna hainbatetan izandakoa izan ziran mahai inguruan. Moderatzaile lanetan, Ainhoa Azurmendi, psikologo eta kirol aholkularia bardintasun politiketan aditua.

Arratiako kirolariak be egin eben berba gaiaren gainean. Txirindulari, segalari, atleta, igerilari, sokatiralari, eskalatzaila, futbolari, rugbilari eta mendizaleen eretxiak Ibai Pujanak egindako bideo baten erakutsi ziran.

Hitzordua domekaz eta eguerdian izan zan, eta aretoa bete-bete egin zan. 8. eta 9. orrialdeak



"Emakumea eta kirola" mahai inguruko partaideak.

ARRATIA

Arratiako Udalen Mankomunitateak eta udalak gazteentzako proiektu barria abiatuko dabe

Foru Aldundiaren Udal Gaztedi programearen barruan, mankomunitateak eta udalak Arratiagaztedi izeneko proiektua ipini dabe martxan. Honen helburua gazteen parte hartzea sustatzea eta eretxiak, kezak eta proposamenak jasotea da.

Foroetan Kultura eta Aisialdia, Enplegua eta Heziketa, Etxebizitza eta Herria eta Natura arloko gaiak eztabaidatuko dira.

Arratiagaztedi proiektuan hainbat metodologia erabiliko dira: tailerrak, inkestak eta antzezlanak, besteak beste. Gainera, sare sozialetan profilak zabalduko dira (Facebook, Tuenti), eta partaidetzarako karpak ipiniko dira herri guztietan. 5. orrialdea

DIMA

Kanpaina euskerea bultzatzeko

Euskerearen erabilera bultzatzeko "Diman 200 baietz" izeneko kanpaina abiatu dabe. Herritarrak "Zer egin neinke nik euskerearen alde 2013 urtean?" itaunari erantzun behar deusie. Euskera Batzordeak adierazotakoaren arabera, "euskaldunen porzentajea txikitu da herrian eta dakienak gitxiago egiten dabe". 7. orrialdea

IGORRE

Euskerearen erabilera gora doa

Igorreko kaleetan gero eta euskera gehiago entzuten da. Soziolinguistikako Klusterrak egindako neurketaren arabera % 46,8k erabilten dabe euskerea. Hamar urtean 15 puntu igon dau beraz. Izan be, 2001ko neurketan % 32,9k erabilten eban euskerea eta 2006koan, % 36,4k. Bizkaian % 9,4k bakarrik egiten dau kalean euskeraz, Klusterraren datuen arabera. 5. orrialdea



KANTU HERRIKOIAK

AI! PERU, PERU,
PERU

Ai Peru, Peru, Peru,
zu beti alperra, alperra,
sami izango dozu
alkondara zaharra.

Alkondara agirian
frakaren zulotik,
eta txapel txatala
belari ondolik.

Trian lara lara...

Iturria: Bitoria Artetxe Ziarrusta (1914-2006) eta Paule Mendibil Uriarte (Zeanuri 1922-1984).

1978an, Zeanurin, Mikel Manterola, Iñaki Larrakoetxea eta Ruper Lekuek jasoa.

Frantziska Agirrezabalaren eskutik
beste bertso hau jatoriku:

Basemiko mutila
kontsolagarria,
kolkoan arto zati
ikaragarria.

Ai! Peru, Peru, Peru

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Urri bigarrenaren 15etik 21era

Kortazar. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Goirra. Amorebieta-Etxano.

Urri bigarrenaren 22tik 28ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Urri bigarrenaren 29tik

zemendiaren 4ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Carazo. Karmelo Torre kalea 12. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduru: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua
22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduru: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era
orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara

30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik
behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era
orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta

20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15
eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15,
14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15
eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriatik): 10:40, 13:40,
16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan
dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau
eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan
dau Gasteizetik. Otxandioakorik ez dago.

Babesleak:



Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

bbk



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino taldea: Urtzi Barrenetxea, Cristina Ruiz, Irati Urien eta Jon

Urutxurtu.

Maketazinoa: Iñigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Alaia Ozerinjaregi eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.600 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Arteako herriari

Arteako Herrira bilguneak jaietan txosna ipinteko ebatzia hartu ebanean, baekien zein zan eskaerarako prozedura: idatziz udalean eskaera formal sartzea. Bardin, euskal preso politikoen aldeko bazkariagaz, MerkArtea egunean plazan egiteko baimen eskaera sartu genduan, gauera arte plazan egitaraurik ez egoala aprobetxauta.

Azkenengo momentuan, alkateak eta bere alderdiak ezetz! Jaien bezperan, urri lehenengoaren 6an, txosna jadanik ipinita euki genduan, alkatearen notifikazioak heldu jakuzan, baldintzaz beteta. Batetik, txosna karpantik kanpora atera ezik baimenik ez genduala esanez, eta bestetik, MerkArteako Herrira bazkaria plazan egiteko debekua. Gainera, Herrirako txosnara elektrizidateko kablea eta uraren tomea ez ipinteko agindua emon eutseen langileai.

Arteako Herrira bilgunea, Euskal Herriko beste herrietakoan moduan, herritarrak batu eta euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen alde egiteko sortu da. Bilgune zabala izatea da bere asmoa, norabide horre-

tan lan egin gura dauan edonor hartzeako prest dagoana. Bide horretan, aurten bideo-emonaldia, etxerik etxeko buzoneoa, jaietako txosnea, kontzentrazioa eta bazkaria antolatu doguz, inor kaltetu barik, gure aldarrikapenak egiteko.

Espazio publikoa danona da, herriarena da! Herritik sortutako adierazpen eta aldarrikapenak bizikidetzan naturalean emotea exijiduten dogu. Alkateak eta bere taldekoak, ostera, euren gustukoak diran ekintzetan baliabide guztiak ipini eta euren gustukoak ez diran aldarrikapenen aurrean zensura apliketan dabe.

Frontoian egin genduan bazkaria azkenean, eta han alkartu ginan 60 lagun. Eskerrik asko sukaldariai, trikitilaria, eta bazkaltzen egon zinien guztioi! Lanean jarraituko dogu, herritarrak ahalik eta gehien batzean, euskal preso eta iheslari guztiak etxean euki arte!

la egunen baten EAJ-PNV gatazka politikoa konpontzeko urratsak emoten hasten dan, orduan esku zabalik hartuko doguz...

Euskal preso eta iheslari politikoak etxera!

ARTEAKO HERRIRA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Udagoien



Urtearen lau sasietako bat da, uda eta negu artekoa. Urri lehenengoaren 21ean hasi eta abenduaren 21ean amaituten da. Hainbat erataria esaten da Arratian: udutzen eta uratzen, Ubiden; udazken eta udogoin, Diman. Edozelan be, gehien erabilten dana udagoien da (udegoyena, agoskatuta). Batuaz, udazken. Udagoiena berbea burura etorten bajaku atoan orri-jauskereagaz lotuten dogu, lur gainean geldituten diran orbelakaz.

ERETXIA



JOSU BASOZABAL

Filme Sozialak 2012
Zinemaldiko epaimahaikoa

Laugarren Film Sozialen Nazinoarteko Zinemaldia

XXI. gizaldia urre aro barri bat izan eitekean, kultura, arte eta zientzien pizkundea, gure gizartea, edozein krudelkeria, bazterketa eta injustizia errotik ateratzeko eta garapen iraunkorra eragiteko kapaz dan humanismo barri bategaz bustiz. Baina globalizazioak guztiz kontrakoa ekarri dau: eukitea, eta ez izatea; zekenkeria eta ez alkartasuna; itxikeria eta ez alkarlana; printzipio demokratiko, lorpen sozialak eta garapen modu desbardinak, tragetako kapaz izan dan sistema bat ezarri dau eta gure planetako bizitzari modu larrian eragin deutso.

Hedabide masiboak be badaukie erantzukizunaren zati bat gertatzen dan honetan. Gehienak merkaduaren menpe dagoz, eta podere ekonomikoen proposamenetik harago ez dabe krisitik urteteko beste alternatibarik erakusten. Hedabideen multinazionalak eragin handia daukie munduko populazio osoan, aisialdian zein albistetan, informazioaren ekoizpen, emisino eta distribuzioari esker. Hedabide honeen konbenziduteko gaitasunak eta munduko bazter guztietara heltzeako ahalmenak podere absolutua emoten deutsee.

KCD-Kultura Comunicación y Desarrollo da film sozialen nazinoarteko 4. Zinemaldia antolatu

dauan Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundea (GGKE). Honen eretxian, garapenerako komunikazioan inbertidu behar da, ez bakarrik giza eskubideen urraketak salatzeke, baita munduan dagozan adierazpen kultural eta eretxi ugariak erakusteko be potentzial handia daukalako.

Zinemaldiak aurten, istorio ugari erakutsi ditu. Azpimarratu behar da proiektu diran 55 lanen erdiak andrak egindakoak izan dirala. Irudien bitartez, Giza Eskubideen urraketak salatu dira eta garapen, bizikidetzan eta ekidate proposamenak egin dira. Saioetan 3000 ikusletik gora izan da.

Azkenengo edizino honetan, epaimahaian parte hartzeako deitu nabe, Giza Eskubideen Sailan. Epaimahaikideon lana gogorra izan da, metraje eta eduki desbardinak 18 filmen artean aukeratu behar izan dogu eta.

Sail honetako saria ago batez emon jako metraje laburreko film sano lazgarri bateri, *The rattle of Benghazi* izenekoari, hain zuzen be.

Sinopsia: Neba-arreba bi eskolatik kanpo dagoz olgetan tiro eta bonben artean. Hotz dago. Adel (9 urte), Ada (6 urte) bere arreba txikerragaz dago olgetan. Arbolen adarrak kontetan emoten dabe denporea, Libiako iraultzaren lehenengo matxinadetan hil baino lehen, aita erakutsi eutsen moduan. Amamaren etxerako bidean karraka bat topetan dabe hondartzan itxitako maleta baten. Karrakeari jiratu arazoten eta arboletako adarrak kontetan, oinazeak eta heriotzeak markautako errealidadea ikustea saihesten dabe.

Gerrearen eta ahulnetan izaten dauan ondorioen kontrako alegatu bat da film hau. Gerrea eta umeen errugabetasuna kontrajartzen ditu. Umeak olgetan dira eta nagusiak gerrea jolastzat daukie. Film labur hau, ikuspuntu zinematografikotik bikaina, ikuslearen erraiak mobiduten ditu eta ikuslea ezin da sorgor geratu hain amaiera latzaren aurrean.

Aitamen berezi bi be egin zitan epaimahaia: *Fuego sobre el Marmara* eta *El problema*, Saharako herriaren testigantzea filmari.

* Erredakzioan itzulia

BATZ
BATZ, S. KOOP.
Torrea Iuzoa, 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharrez beharrez,
euskeraz eginez

Euskeraz
Batz on gaitu

MONDRAGON

LUMATUTEN

URTZI
BARRENETXEAC. Ronaldo
vs Messi

Ez dakit halan dan, baina esango geunke herriotako parkeetan gero eta ume gehiago dagozala Real Madril-eko 7a edo Barcelonako 10a daukien kamisetakaz. Baten bateri entzun deusagu horreetariko gehienak kanpoztarrak dirala eta ez dabela Athleticen esan gura dauana ulertuten. Guk, ostera, uste dogu kontua beste bat dala. Eta bardin jaku.

Ikusten gabiz irabazlearen dirdirak bereganatuten gaituala, espektakuluaren magiak dana bustiten dauala, eta, zelan ez, umeak eta euren gurasoak be bai. Halan, herriko futbol-taldeak jokatuten dauanean erdi hutsik egongo da futbol zelaia; ondo-ondoko taberna, bariz, beterik, Cristiano edo Lionel jokatuten ikusteko. Gehienetan, gainera, bardin jaku.

Baiez, betidanik egon dala irabazlekanako mira hori, baina

pentsetan dogu muturreraino eroaten gabizala aspaldian. Orain handitasuna baino ez dagoala emoten dau, zeinda beste guztia existiduko ez balitz lez. Baina bardin jaku.

Badakigu, estereotipoak erabiltzen gabiz. Halanda be gero eta argiago daukagu karinkarako makina bat errealidade ikustezi-nak dirala askorentzat. Sakrifizio berbea bera be eleizako liturgiaren konturen bat ete dalakoan, ez deusagu jaramonik egiten su txikian berotutako lapikokoari, "eskeAratienezdauzebebez" dingoan bitartean sofan eserita. Batez be ikusgaritasunaren bila gabiz, sosegau barik. Batzuetan, esan lei proiektu batek arrakasta eukiteko BECa bete behar dauala, gitxienez. Osterantzean, bardin jaku.

Letra txikian esaten diran gauzen gainetik idiak zapa-narruagaz lez pasetan gara, eta berba potoloak baino ez deuskue deitzean. Baten bat be parauko zan testu hau irakurten daukan izenburuagaitik; "Bestelako proiektuak be badagoz gurean" ipini ezkerro goialdean, jokatuko geunke orri pasan segiduko leukela holango kontuak jaramonik egin barik. Halan ez bada be, bardin jaku.

ZERTZEAN



ANGEL LARREA

Berari begira nago, ia-ia beti. Ez al da konturatzen maite dudala?

A, arrosaren begi gozoak!
Berari begira nago,
eta ez dakit zer egin, zer esan!
Amodioa izango ote da?

Bihotzak du erantzuna!
Lotsa abandonatuz,
berari begira nago
eta galdetzen diot...

Nor zara baina?
A, haren barreak eta dantzak!
Artean, ni, isilik,
berari begira nago.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera erduan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Hiru minututan musika ikusi egin genduan Areatzako jaietan eta ez zan mirari zerutiarra izan, bertoko andra gazte bik lortu eben.

Artea sortzea da. Kultura popularrak errepikatuz sortzean dau. Zirkoak ilusinoak sortzean ditu espazio baten. Antzerkiak bizimodu ikusgai ezartzen deusku. Estetikak imajinaren poderea erakutsi. Danak kitzikagarriak doguz, emozinoak eragiten ditue gudan.

Aurtengo Rosana eta Estiren play-backa hori dana izan da: artea, kultura popularra, zirkoa, antzerkia, estetikea. Eta dana errepikaezina dan su artifizial musikatu eta argitsu lez. Horrexegaitik emozio-nau gaitu hainbeste.

Plazer handia izan da, reinonak!

Maite Artabe




Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Gorosti
LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.147 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorosti.cl.com

 **Ortodontzia
Implanteak
Estetika**
hagin klinika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1, behea
48140 Igone-Bizkaia
T. 94 631 30 39

Marina Urigoitia Aldekoa, 110
R.P.S. 25/06


nagusientzako etxea
residencia para mayores


Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

IGORRE

Igorren, gero eta euskera gehiago entzuten da

Soziolinguistika Klusterrak egindako neurketak dino % 46,8k erabilten dauala.

HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA ADINAREN ARABERA. IGORRE, 2011 (EUSKARAZ, %)



Iturria: Soziolinguistika Klusterrak, Igomako hizkuntza-erabilaren barne-neurketa, 2011.

Kale erabilerearen koadroa.

Erredakzioa

Igorreko kaleetan dabizenen ia erdiak egiten dau euskeraz. Halan laburtu lei VI. Hizkuntza Erabileraren kale-neurketak herri horretan emon dauzan datuak. Soziolinguistika Klusterrak zuzendutako ikerketak dinoanez, Igorren % 46,8k egiten dau euskeraz kalean, % 49k gaztelaraz eta % 4,2k beste hizkuntzaren bat.

Datu positibotzat hartu eban Klusterreko teknikaria dan Belen Urangak Igorren egindako aurkezpenean, hilaren 4an. Oraindino positiboagoak dira, Urangaren eretxian, kontuan hartu ezker 2001ean euskera erabilten ebanen porzentajea % 32,9koa zala, horrek esan gura dau ia 15 puntu igo dauala kopuru horrek 10 urtean.

Datuak interpretetako, herriko ezagutza-datu estadistikoak be erabilten dira. Halan, jakin lei euskera dakienetatik zenbatek egiten daben. Igorreraren kasuan, azkeneko urteotan arean bajatu da euskera dakien kopurua; % 77tik % 68ra. Horrek esan gura dau, Igorren euskera dakien kopurua gitxi gorabehera mantentidu bada be, gero eta gehiago erabilten dala.

Dakienak euskera ez erabiltea izan zan, hain zuzen be, "Igorren euskera zuzterretik" herriko Euskera Plana martxan ipinteko arrazoia. Esan lei ordutik martxan ipinitako neurrien frutuak ikusten hasi dirala. Erabilerearen joera goranzkoa izan da ordutik: % 32,9, 2001ean, % 36,4 2006an eta % 46,8 2011n.

Gazteak, erdaldunenak

Orokorrean, datu positiboak badira be, datu zehatzagoak erakutsi egiten dabe non dagozan hutsuneak.

Batez be, bi dira aitzatekoak.

Batetik, euskera gitxi erabilten dauan adin-tartea gazteena izatea: % 35,4k egiten dau euskeraz. Orain dala bost urtetik hona askoz be euskera gitxiago egiten dabe 15 eta 25 urte artekoak Igorren; izan be, 2006an % 43,5ek egiten eban. Euskal Herri mailakoan aldean, datu berezia da hau; ia beste leku guztietan gazteak helduak baino euskera gehiago erabilten dabe eta.

Beste hutsune nagusia helduen eta umeen arteko harremanagaz dago lotuta. Ikerketak erakutsi dau umeen % 61,5ek egiten dauala euskeraz euren artean, ehuneko berori mantentidu egiten da umeak helduak dagozanean. Ostera, umerik ez dagoan kasuetan, helduen % 27,4k bakarrik egiten dau euskeraz. Horrek esan gura dau umeak egoteak ala ez egoteak asko eragiten dauala hizkuntza bat ala bestea aukeratzeko orduan.

Ikerketea igaz egin zan Euskal Herri osoko hainbat herritan. Ikerketak metodologia bardina mantentiduten dau 1989an lehenengoz egin zanetik: egun eta ordu jakinetan, aurrez lotutako ibilibide bat segiduten dabe ikerketako teknikariak, eta bidean entzuten dabizen alkarrizketak fitxa baten apuntetan dabez; besteak beste, berba egiten dabenen hizkuntzea, euren adina, sexua eta umeak dagozan ala ez. Igorreko kasuan, 2011ko urrietan egin ziran neurketak, 6 egunetan eta guztira 16 ordutan; sasoi horretan, 1.047 alkarrizketa eta 3.081 hiztun neurtu ziran,

Ikerketako emoitza nagusiak dinoe Euskal Herri mailan % 13,3k egiten dauala euskeraz, EAE mailan, % 16,1ek, eta Bizkaia mailan % 9,4k.

AREATZA

Odol emoileai omenaldia

Erredakzioa

Hilaren 20an, Areatza, Artea eta Zeanuriko 37 odol emoileri omenalditxo bat egingo jakie Areatzako udaletxean. Odol emoileen alkarteko presidentea, Alvaro Larrea eta Juan Cruz Maseda koordinatzailea egongo dira. Baita Ignacio Molina Areatzako delegadua, Iñaki Zuluaga Arteakoa eta Jabier Sagarna Zeanurikoa.

Omenduak, odola 20 bider baino gehiagotan emon daben andrak eta 25 bider baino gehiagotan emon daben gizonak izango dira. Ekitaldian diploma bana emongo jakie eta ostean Jubiladuen tabernan, Areatza, Artea eta Zeanuriko Udalak emondako kopautua izango dabe.

"Gazteria mehe"

Omendu gehienak 35-45 urte artekoak dirala dino Areatzako delegadua, 13 andra eta 24



Odola emoten.

gizon. Eta zaharrak ez izan arren, "gazteria mehe" dagoala eta hiruhileberik behin odola emotera animau gura ditu. "Jente gazte gehiago behar dogu. Batzuk hurreratzen dira autobusera eta lagunartean egiten dabe berba eta emoten dabe odola, baina gehiago behar doguz" dino Molinak.

ARRATIA

Gazteen parte hartzea bultzatzeko Arratiagaztedi proiektua abiatu dabe

Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitateak eta udalak Arratiagaztedi izeneko proiektua ipini dabe martxan gazteen parte hartzea sustatzeko eta euren eretxiak, kezak eta proposamenak jasoteko. Ekimen hau Bizkaiko Foru Aldundiaren Udal Gaztedi programearen barruan dago.

"Hainbat metodologia erabiliko dira: tailerrak, inkestak eta antzezlanak, besteak beste. Gainera, sare sozialetan profilak zabalduko dira (Facebook, Tuenti), eta partaidetzarako karpak ipiniko dira herri guztietako kaleetan. www.arratiagaztedi.com webgunea izango da proposamen eta

hausnarketa guztiak bideratzeko erabiliko dan baliabidea. Parte-hartzaileak aukerea eukiko dabe webgunean informazioa eta eduki barriak sortzeako, eta, prozesu guztia amaitzen danean, emoitza aurkeztuko jakiez: zerk urten dauan, eta zeintzuk diran euren kezak eta proposamenak. Udal guztiak eta Mankomunitateak be jasoko dabez emoitza, ahal dan neurrian ekimenak, ekintzak eta programak gazteen beharrezanetara eta eretxietara egokitze" dinoe mankomunitadetik.

Kultura eta Aisialdia, Enplegua eta Heziketa, Etxebizitza eta Herria eta Natura izango dira foroetako oinarritzko eztabaida-hariak.

Prozesu honek lau hilabete iraungo dau. "Abendua amaitu baino lehen, eztabaida eta informazio guztiak jasoko dituan txosten bat prestatuko da. Dokumentua, parte-hartzaile guztia emongo jakie, mezu elektroniko bidez edota webgunetik bajatzeko aukerea emonda".



Gazteak.

LEMOA

Aurrekontuak egiteko batzar egutegia

Lemoako Udalak aurrekontu parte-hartzaileen prozesua ipini dau martxan aurten barriro be.

Erredakzioa

Sektore batzarrak (alkartearak, merkatariak, edadekoak eta gazteak) eta lau auzo batzar egin

dira daborduko eta bigarren hamabostaldi honetan egingo dira falta diran auzo batzarrak. Holan, hilaren 18an, jubiladuen gaineko aretoan Arantxe, Pozue-

ta, Mendieta eta Durandioko auzokoak batuko dira eta hurrengo egunean Arraño, Azurreka, Txiriboketa, Mendibil eta Txixotegiko auzotarrak dagoz udaletxera deituta.

Herritarrak euren eretxiak eta preminak adierazoteko aukerea daukie holan. Honeek kontuan hartzeako konpromisoa dauka udalak eta, egoki jo ezker, diru partidea emoteko aurrekontuetan. "Udaleko tresnarik garrantzitsuena osatzerako orduan herriagaz kontetea ezinbestekoa dala ueste dogu Lemoako udaletik" dino Aitor Erauzkin zinegotziak.

IGORRE

Hiri Debekatuaren Mapa ikusgai Kultur Etxean

Erredakzinoa

Igorreko Kultur Etxean Igorreko Hiri Debekatuaren Maparen erakusketea eta bisita gidatuak antolatu ditu Udalak.

Hiri Debekatuaren Mapan andrentzat segurtasun zein irisgarritasunagaitik desorosoak diran lekuak marketan dira, udalak akats honek zuzendu eizan. Inaugurazino ekitaldia hi-

laren 29an izango da arrastiko 20:00etan eta bisita gidatuak martitzen eta eguenetan izango dira 11:00etatik 13:00etara eta astelehen eta eguaztenetan 19:00etatik 20:30era. Urigintzan genero ikuspegia sartzeko proposamenak jasoteko egin dau mapea Igorreko Udalak. Izan be, andren kontrako indarkeria saihesteko aurrerapausu garrantzitsua da, Hiri Debekatuaren Mapa, adituen ustez.

UBIDE / ZEANURI

Ubide eta Zeanurik pastuen inguruko pakea barriztatuko dabe

Udalbatzen batzarra eta Larreen Mankomunitatearen VI. Zeharkaldia urri bigarrenaren 27an egingo da.

Jon Urutxurtu



Galtzadea.

zeharkaldia Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako Ondarearen Europako Jardunaldien egitarau barruan dagoz.

Udal bien batzar hori aprobetxauz, orain dala sei urtetik, Zeanuriko Ipizki eta Joko Alai, eta Ubideko Amexier eta Ortu- zarkarteak Zeanuritik Ubidera doan zeharkaldia antolatzen dabe, Gasteiz eta Bilbo lotzean ebazan Erdi Aroko galtzadea jarraituz. Urtekerea Zeanuriko plazan 10:00etan izango da eta autobus zerbitzua egongo da 09:00etan Ubideko plazatik Zeanurira joateko eta 13:30ean Ubidetik Zeanurira. Zeharkaldiak 12 km inguru ditu.

Ibilaldiari amaierara emoteko 13:00etan, Zeanuriko eta Ubideko zinegotziak batzartu egingo dira Ubideko udaletxean; bilera horretan idazkariak udalerrri bakotxean izena emon daben abelburuen zenbakiak aurkeztuko dabez, eta bilera-agiria sinatu ostean, danak batera bazkaltzera joango dira. Datorren urtean gauza bera egingo da, baina Zeanuriko udaletxean, eta bazkaria ordaintzea be zeanuriztarrai egokituko jakie.

Urri bigarrenaren 27an, orain dala gizaldi bat baino gehiagotik urtero errepikatzen dabenez, Zeanuriko eta Ubideko Udalak larreen mankomunitadeko kontuen kitapena egingo dabe eta pakea barriztatuko dabe. Batzar hau aprobetxauz, Zeanuri-Ubide Larreen Mankomunitatearen VI. Zeharkaldia egiteko aukerea be eskeiniko da. Batzarra zein

LEMOA

Bilduk informazino faltea salatu dau harrobiaren betetze lanetan

Erredakzinoa

Hilaren 10eko prensaurrean, Lemoako Bilduk, Lemoatxeko betetze lanetan legedia betetzen dan jakiteko, hainbat informazino eskari bialdu deutsala Udalak Eusko Jaurilaritzako Ingurugiro Sailari baina ez dabela ezelako informazino jaso salatu eban. Udalak ikerketak abiatuko ditu hau argitzeko.

"Joan dan bagilean, Ingurugiro Saileko arduradunagaz batu ginnan Lemoan ingurugiro kontrola egiteko zenbait eskakizun helarazo gura geuntsazalako. Biler horretan jakin genduan Peña Lemoako harrobi zaharraren jaubea eta harrobia betetzeko lanetarako dagoan enpresemi espedientea zabaldu jakola. Udal arduradunak garan neurrian, aferaren inguruko informazino jaso ez izana salatu genduan"

azaldu eban Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak.

Harrobia betetzeko lanak legea betetzen daben bermatzeko "lan horreetako enpresa baimenduak

egin daiekizan balizko irregularitasunak ikertzeko betebeharrak" dauka Udalak eta ikusita Eusko Jaurilaritzaren eta Udalaren arteko alkarlanean egitea ezinezkoa dala, Udalak bere kabuz egiteko konpromisoa hartu dau.

Lehenengotik betetzeko erabilten diran materialen analisiak egingo dira. Horretarako aurrekontuak eskatuta dagoz iadanik.



Lemoako Udalean emondako prensaurrekoa.

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea

Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana

Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

publicidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115

www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
**94 631 73 14 eta
649 979 112**

begitu@topagunea.com

L

ARRATIA AUTOESKOLA
karnela eskolaraz zein erdioraz

Agne Lehenakaria 11 48140 Igone (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 56 31 Faxa 94 673 70 83
E-posta: unabuz@euskainet.net

NAIARA Hartz Klinika

Lehendakari Agirre, 19
48140 Igone
94 631 52 26

Los Chopos
neurriera egindako armairuak

Arda, Los Chopos, 35 (Nagusi) Tel.: 94 430 40 94

Esposizinoa eta fabrikea Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

MERKA LABELA-HARATEGIA

Eusko produktioak

- Turrizak
- Oliboak
- Bostakak
- Salbitzak
- Harburuzak

• -

Arriako produktioak

- Baserriak
- Oliboak
- Baserri arriak
- Turrizak
- Harburuzak
- Geroak fruta eta herriak

Herriak eta herriak
Herriak eta herriak
Herriak eta herriak

*** KIRRU * ILEAPANDEGIA SOLARIUM**

Roberto eta Rosana

Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 00

Orrie
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA

E. Agirre, 7.
48140 Igone (Bizkaia) Tfnoa: 94 631 64 78

INCOESA

Tel. 94 631 32 75
Faxa. 94 631 37 66
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

ARRATIA

Bardintasun Zerbitzuak Beldur Barik lehiaketea antolatu dau

Andren kontrako diskriminazioak ikusiarazoten dituen gazteai zuzendutako lehiaketea da Beldur Barik.

Erredakzioa

Lehiaketea bikotxa da, Berdinsareak antolatutuen dau Erkidego Autonomoan eta, oraingoan, Arratiako Udalen Mankomunitateko Bardintasun Zerbitzuak be bai gurean. Arauak berberak dira bietan, baina bakotzak bere sariak emoten dauz.

Beldur Barik lehiaketearen helburua andren kontrako diskriminazioak ikusiarazoten dituen neska eta mutilen adierazpen artistikoak saritzea eta bultzatzea da. "Lanak errespetuan, bardintasunean, askatasunean, autonomian, erantzunkidetasunean eta indarkeriaren kontrako konpromiso sendoan oinarritutako jarrerak ikusi arazo behar ditue" dinoe mankomunitadetik.

Lehiaketa bikotxa

12 eta 26 urte bitarteko gazteak hartu ahal dabe parte eta lanak hilaren 31ra arte aurkeztu daitezke. Ikus-entzunezko formatuan aurkeztu behar dira lanok, bideo plataforman baten esteka emonaz: youtube, vimeo, blip eta abar. Kategoria bi dagoz 12-17 urte bitartekoentzat kategoria bat, eta 18-26 bitartekoentzat beste.

Sariai jagokienez, Berdinsareak Euskal Erkidego Autonomoan 1.000 euroko sari bi, gehi herri saria, 300 euro, emoten ditu. Arratiako Bardintasu sailak 300 euroko saria emongo dau kategoria bakotxean.

Parte hartzeako lan proposamenak jarrera@beldurbarik.org helbidera bialdu behar dira.

DIMA

Euskerearen aldeko kanpaina

Dimako euskera batzordeak "Diman 200 baietz" izeneko kanpaina ipiniko dau martxan, dimoztarrai euskerearen aldeko konpromisoa eskatzeko.

Erredakzioa

"Zer egin neinke nik euskerearen alde 2013 urtean?" itaunari erantzuteko, jentea pentsetan ipintea gura dabe batzordekoak. Kanpainearen ekintzak zehazteko dagoz oraindino.

Kanpaina honegaz Diman euskerearen erabilera bultzatzea gura dabe. "Dima herri euskalduna da: % 89,1 euskaldunak gara eta % 4,8 erdaldunak. Eskualdeko herri txikienetakoa izan arren,

azken 20 urteetan 317 biztanle irabazi ditu eta aldi berean azken 30 urteotan euskaldunen portzentajea txikitu egin da % 5ean. Herria haziz doa, baina geroago eta euskaldun gitxiago dago. Eta dakigunok be geroago eta gitxiago egiten dogu" jakinarazo dabe kanpaina honen zergaitia azaldu teko batzordekoak.

Egoera horri bueltea emoteko dimoztarren euskerearen aldeko konpromisoa beharrezkoa da.

ZEBERIO


Lorentza Uriak 106 urte

Erredakzioa

Arlitzako (Zeberio) Lorentza Uriak 106 urte bete ditu hile honetan.

Lorentza, Arratia, Ubide eta Zea-nuriko amama da eta Auzkorta baserrian bizi da familiagaz.

Auzkorta baserrikoa kasu bakarra da. Izan be, bertan, 100 urtetik gorako bi eta 80 urtetik gorako beste bi be bizi dira: 106 urteko Lorentza Uria; neba Julian 102 urtekoa; Felisa, alabea, 82 urtekoa eta Migel suina 87 urtekoa.



Lorentza Uria.

DIMA

Ehun kiloko harri batek gizon bat harrapatu eban

Erredakzioa

Istripua urri bigarrenaren 2an gertatu zan arrastiko zortzirak aldean Dimako Lamindao auzoan. Ehun kilo inguruko harri batek Lamindaoko 83 urteko Jose Mari Arteaga harrapatu eban azpian. Ertzaintza heldu zan bertara eta saiatu zan harria altxatzen baina ezin izan eban. Gizona lau orduz egon zan harri azpian harrapatuta. Suhiltzaileak atera eben eta Galdakaoko ospitalean ospitaleratu eben. Ospitalean pare bat egun egin ostean etxean da Arteaga.

URRIAK 13 ZEANURI (Bizkaia) 13 Octubre

EGUZKILORE SARI NAGUSIA

www.gorbeiasuzien.com

Eskerrik asko danori!!

ANTOLATZAILEAK

BATESLEAK

LAGUNTZAILEAK

OPEL

Ibaigane, S. Coop. Ltda.

Entzufe, 15
48330 LEMOA (Bizkaia)
Telf: 631 33 30 - 631 31 31
Fax: 631 36 15

Hezi ta Hazi Akademia

Eskola Laguntza

94 656 69 18
heztahazi.com
heztahazi@gmail.com
Eguskiza Meabe 2, Lemoa

"EMAKUMEA ETA KIROLA"

Gorputza gustura badago, buruak ondo funtzionetan dau



Oihana Kortazar, Maider Unda, Ainhoa Azurmendi, Naia Alzola eta Irati Anda.

"Emakumea eta kirola" izeneko mahai inguruak bete egin eban Zeanuriko Kultur Etxeko aretoa urri bigarrenaren 14an. Gorbeia Suzien Eguzkilore Sari Nagusia mendi-lasterketea dala eta antolatuta zan mahai ingurua hau. Domeka eguerdiak ez dirudi momenturik onena baina kartela lujuzkoa zan, eta arratiarrak hurreratu ziran Irati Anda, Naia Alzola, Oihana Kortazar eta Maider Unda goi mailako kirolariak ikusi eta honeen berbak entzutera. Moderatzaile lanetan, Ainhoa Azurmendi psikologo eta kirol aholkularia, kirola eta bardintasun politiketan aditua.

Zertu Kultur Alkarteko Cristina Ruizek egin eban ekitaldiaren aurkezpena. "Puntako kirolari honeetaz gainera, Arratiako kirolariak hemen egon beharko litzatekela pentsau genduan eta ez publikoaren artean bakarrik. Horregaitik bideo bat egiteko eskatu geuntsan Ibai Pujanari, haren berbak jasoteko". Bideo honen ostean hasi zan mahai ingurua.

Erredakzioa

Ainhoa Azurmendi: Zergaitik egin gai honen gaineko mahai inguru bat, badauka zentzurik?

Oihana Kortazar: Gizartearen jente askok ez dau normal ikusten andra batek kirola egitea, "emakume egin beharrak" alde batera itxita. Nik neuk semea jagoteko laguntasun handia daukat

eta ez deuste pega handirik ipinten, baina kanpora noanean beti dago baten bat esaten dauana "ai ume koittaua". Niretzat benetan pasinoa da mendi lasterketea eta galdetzen deustenean ea zer egin behar dan bardintasuna lortzeako kirolean, nik esaten dot itaun hori ezabatu egin behar dala, ez litzatekela itaun hori egin behar.

Naia Alzola: kirola gizartearen

isla da eta gizartearen bardintasuna lortzeako asko falta da oraindino eta mahai honen moduko gauzak beharrezkoak dira.

Maider Unda: kirol erronkarik handienak lortzea posiblea dala erakustera etorri naz ni. Txikitik hasi nintzan burrukan eta inoz ez deutsat garrantziarik emon gizon ala andra izateari. Jenteak esaten eustan, "marimutil" eta holakoak, baina nik ez dot inoz horretan

pentsau, kirola maite dot eta hori izan behar da garrantzitsuena, kirola traba barik egitea.

Irati Anda: ez dot inoz sentidu itaun horren beharra. Niri eskaletako aukerea agertu jatan, gustau egin jatan eta beste barik. Eskaladea ez balitz beste kirolen bat egingo neukean, naturala da niretzat kirola egitea.

Azurmendi: Baina nahiz eta itaun horren beharrik ez iza-

tea gura, argi dago kirolean andrak eta gizonak desbardintasun egoeran dagozala. Adibidez, baliabide banaketan.

Unda: kirolak olinpikoak diranean bardindu egiten dira. Adibidez, beka bardina emoten jakie bai andrai eta bai gizonai emotzen arabera.

Azurmendi: eta sarien alde-tik?



Kortazar: nik ez dot desbardin-tasunik ezagutu sarietan, mendi lasterketetan bardinak dira sariak.

Alzola: Nik bai bizi izan dodaz desbardintasun egoerak. Kirol barrien kasuan sariak bardinak izaten dira, baina maila ez profesionalean eta kirola ez danean barria ez da holan izaten. Esaterako, triatloia kirol barria da eta hor sariak bardinak dira gizon zein andrazkoentzat, baina txirrindularitzan alde handia egoten da askotan. Arratia mailan oso ondo ezagutzen dan ziklo-kros diziplinan adibidez, desbardintasun handiak egoten dira eta ez bakarrik diru kopuruan. Lorak eta txapelak be, askotan mutilentzat bakarrik izaten dira.

Unda: hor askotan kirol profesio-nala dan ala ez da kontua. Futbol profesionalean, 3. mailako gizonetakoak lehenengo mailako andrak baino gehiago irabazten dabe. Txirrindularitzan bardin.

Azurmendi: Bai, klubak egi-ten dauan apostuak, klubaren politikeak zeresan handia dauka horretan. Aurten Real Sociedad-ek neska guztiai kontratu profesio-nala egin deutse, danak sinatu dabe kontratu bat. Hori da egin daben apostua.

Aitatu beharreko beste gai bat da amatasunarena, estereotipoakaz lotutakoa. Zelan bizi dozue hori?

Kortazar: niri zera esaten deus-te, "bigarren umea ekarri ezkeru, ez pentsa hain errez eukiko dozunik kirola egitea". Eta niri pena handia emoten deusta kirola ix-tearen pensamentu hutsak. Baina ume bat euki ezkeru, haregaz be egon gura izaten dogu. Horre-gaitik da hain gatxa buztartzea.

Anda: Kirolaren arabera be bada hori. Nik ezagutzen dot katalana bat esan eustana, ama izan danetik etekin handiagoa ateratzen deustala indar entrenamentuari. Badago beste bat hiru seme-alaben ama dana eta konpeti-duten ibiltan dana eta ikastolako

gurasoak "zelan itxi leikez umeak holan" eta holango komentario-ak egiten dabez, baina kasurik be ez. Nire ustez, garrantzia handikoa da jentearen komentarioai kasurik ez egitea.

Azurmendi: kirol batetik bestera desbardintasunak egongo dira, baina oso garrantzitsua iruditu jata errendimentuarena.

Kortazar: nik umea euki, eta umeak 7 hilabete zituanean hasi nintzan entrenetan eta hurrengo urtean lortu nebazan inoz lortu-tako emoitzarik onenak. Ez da ezinezkoa. Lortu zeinke lehen baino sasoi hobea.

Anda: Baina nik itaun bat egin gura deustat gizaritari. Neska jaioteagaitik nahitaez ama izan behar gara? Ama izateko jaijo gara? Nik ez daukat behar hori momentuz. Ez dot behar hori ikusten. Kirolaria gizona bada ez da aitatzen aita dan ala ez. Eta ez jako itauntzen izatekotan zelan moldatuko dan umeagaz.

Azurmendi: Baina egia da, Naiak esaten dauan moduan kirola gizaritearen ispilu dala eta estereotipo horreek pisa daukiela. Kirolarien kasuan gainera lan egiteko tresna gorputza danez...

Estereotipoak bazterrean ixteko zuon nortasun handia behar da eta danak ez daukie nortasun hori. Estereotipoak apurtzeko ereduak oso inportanteak dira.

Gaia aldatuz, zer da kirolak emon deustuen gauzarik positiboena?

Unda: Nire bizitzako momentu-rik onenak kirolak emon deustaz.

Real Sociedad-ek

aurten neska guztiai

kontratu profesio-nala

egin deutse

Bizitzako momentu txarrak gain-ditzen ikasi dot, aurrera jarraituten.

Kortazar: Nire kasuan, dauka-dan nortasuna eukiteko sano garrantzitsua izan da kirola. Gogorra izaten ikasi dot, jente pilo-a ezagutu dot, leku pilo-a... Niretzat sano inportantea da nire urte biko semeak ikustea gaur mendian korrika eta bihar bizikletan

nabilela. Normalidade osoz.

Anda: nire kasuan be antzeko zeozer. Nazana, ikusten dozuen hau, neurri handi baten kirolari esker da. Lehiaketak emoten dabe esperientzia eta mundua ezagutzeko aukerea. Zeure burua kontroletan be ikasten dozu... eta zure pasino-a daukan jentea ezagutzeko aukerea emoten

dau. Gainera, gorputza gustura badago, buruak hobeto funtzio-netan dau. Kirola praktiketako mila modu dagoz eta bakotzak topau behar dau berari gustetan jakona.

Alzola: Nik gurako neuke mahai inguru honek inbidia puntu bat sortzea, neskak animau daitezan kirola egiten.

Arratiako neska kirolariak

Honeek dira Ibai Pujanak egindako bideoan agertzen diran Arratiako kirolariak:

Naia Alzola, (Dima). Orain ziklo-krosa egiten dau, lehen fondoko eskia eta neguko triatloia egiten eban.

Irati Astondoa, segalaria (Zeanuri).

Esti Garcia, txirrindularia (Lemoa).

Onditz Iturbe, atleta (Igorre).

Iraia Liendo, igerilaria (Igorre).

Ruth Linaza, sokatilaria (Lemoa).

Itziar Zabala, eskalatazalea (Dima).

Arratia Futbol Taldea.

Arratiko Zekorrek Rugby Taldea.

Marimendi Mendi Taldea.

Oihana Kortazar

Gorbeia Suzien Eguzkilore Sari Nagusiaren lasterketearen irabazlea. 28 urte ditu eta orain dala 4 urte hasi zan lasterketetan. Kirola egin dau beti: txirrindularitza, ziklo-krosa eta mendi lasterketak. Mendi lasterketetan Espainiako txapelduna 2009an, 2011 eta 2012an; Europako txapelduna 2011n eta Munduko txapelduna 2012an.

Maidar Unda

Aurtengo Londoneko Joko Olinpikoetako burrukan brontzezko domina lortu dau. Beijing-eko Joko Olinpikoetan 5. egin eban eta beraz, diploma olinpikoa lortu eban. Hamahiru aldiz izan da Espainiako txapelduna.

Naia Alzola

Arratiarentzat ezagunena, akaso, Diman bizi dalako. Txirrindularitza, fondoko eskia, neguko triatloia... Espainiako selekzioan egon da urte askotan, munduko txapelketak jokatzen.

Irati Anda

Eskalatazalea, 29 urte. Denporaldi baten profesional izateko puntuan egon zan, baina lesinoagaitik, itxi eban.

Euskal Herriko txapelduna 2005, 2006 eta 2007an; Espainiako txapelduna 2006, 2007 eta 2008an eta Munduko Kopan 5. egin eban 2007an.

Ainhoa Azurmendi

Moderatzaile lanak egin ebazan. Azurmendi, psikologo eta kirol aholkularia da, kirol eta bardintasun politketan aditua. Aevento aholkularitzan egiten dau behar eta kirol arloan andra eta gizonen egoerearen diagnosiak eta kirolean bardintasun politkearen gaineke azterketak egiten ditu.

Soluzioak
bizkaitarren esku

BOZKATU
ehbildu

JOKOAK

Auzo eta taldeen arteko
I. Txapelketaren finalak

Erredakzioa

Dimako auzoetako jaietan, San Pedroetan Ugaranan, Artaun, Olazabal, Oba eta Indusiko jaietan jokaturako auzo eta taldeen arteko txapelketaren finala, hilaren 20an izango da, arrastiko 17:30ean, herriko plazan.

Txapelketea liga moduan jokatu da eta lau taldek hartu dabe parte: Indusi, Bargondiakoak, Obakoak eta Plazakoak. Ligan zehar punturik gehien lortu dauzan taldea Indusi izan da, baina finalan hutsetik hasiko dira danak.

"Txapelketako jardunaldi bakotxean 10 joko eta jolasetan hartu behar izan dabe parte: 6

bakarkako joko, 3 binakako joko eta azkena talde osoak parte hartu behar izan dauana. Joko gehienak jardunaldi guztietan bardinak izan diran arren, batzuk aldatuz joan dira jardunaldiz jardunaldi" dinoe antolatzaileak.

Honeek izan dira jokoak: ago sikua, andur-jokoa, jan harra jokoa, arrautza-jokoa, karretilla-jokoa, txokor batzea, globoak apurtzea eta zaku-karrera. "Joko honeez gain, alde bakotzak bertso bat osatu behar izan dau, oinak emonda. Auzo bakotxean joko edo jolasen bat aldatu izan dabe: holan, Oban eta Olazabalen arrautza-jokoaren ordeztu bola jokoa ipini dabez parte hartzaileak".

PELOTEA

Lemoako taldeko Imanol Arrese eta Ander Varela Bizkaiko txapeldunak

Erredakzioa

Bizkaiko buruz buruko txapelketea oso oparoa izan da Lemoako esku pelota taldearentzat. Izan be, Bizkaiko txapel bi eta azpitxapeldun bi Lemoako esku pelota taldekoak izan dira.

Nagusien mailan, finala Lemoako taldeko pelotarien artean jokatu zan. Imanol Arrese izan zan txapelduna eta Erik Fernandez azpitxapelduna.

22 urtez azpiko mailako txapelduna be Lemoa taldekoa izan zan, Ander Varela, hain zuzen be. Lemoakoa Markinako pelotariari nagusitu jakon finalan.

Kadete mailan, barriz, Arranku-

diagak eroan eban txapela Usan-soloko finalean. Han, Lemoako

Oier Etxebarria Bizkaiko buruz buruko azpitxapelduna izan zan.



Lemoako pelotariak eta lagunak.

MENDIA

Hogeita bost urte Igorreri
bueltea emoten

Erredakzioa

Hilaren 20an, XXV. Mugari Bira mendi martxea egingo da Igorren. Motxogan taldeak Udalararen babesagaz antolatzen dau urtekera hau. Ibilbide bi egongo dira aukeran, luzea 25 km.koa eta laburra 12 km.koa. Hau batez be etxeko txikerrenentzat dago pentsauta. Urtekerea

kiroldegian izango da, goizeko 08:30ean ibilbide luzea egiteko eta 09:00etan ibilbide laburra egin gura dabenentzat. Izena egunean bertan emon behar da kiroldegian martxea hasi baino ordu erdi lehenago. Martxa hau egiten daben ibiltariak Suña, Aramotz, Saldarri, Zekutze, Argiñatx eta Bizkarra mendietatik pasauko dira.

MENDIA

Puntako mendizaleen proiektzino zikloa urri eta zemendian

Erredakzioa

Aurtengorako Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako "Mendi Amesgarriak" proiektzino eta berbaldi zikloan, Denis Urubko, Carlos Suarez, Leo Houlding eta Alex Txikonen dokumentalak eskeiniko dira. Arrastiko zortziretan izango dira saioak, hilaren 25an eta 26an, eta zemendiaren 8 eta

9an Igorreko Kultur Etxeko Lasarte Aretoan.

Denis Urubko kazajhistangoa izan da zortzimilako mendi bat azkarren igon dauan mendizalea. Marka hau 2001 urtean lortu eban, Gasherbrum II mendia 7 ordu eta 30 minututan igo ebanen. Hau izango da lehen emonaldia.

Carlos Suarez, ezaguna da BEGITUREN irakurleentzat, ze

Txikonen azkenengo desafioetan lemoztarragaz egon da. Aurtengo neguko Gasherbrum I-eko zortzarreko espedizioan, berbarako. Suarez 26an egongo da.

Leo Houlding britaniarra be Igorren egotea espero dabe antolatzaileak. Houlding Californiako Yosemiteko El Capitan (900 m) hatxa eskalau dauan lehenengo britaniarra izan da. Igoera gogorra izan zala dino 80 orduko ekaitza sufridu behar izan eban eta.

Alex Txikonek zarratuko dau "Mendi Amesgarriak" proiektzino zikloa bere espedizinoaren bateko dokumentala eskeiniz.

Umeen moda 0-20 urte

- Botoli
- Ray
- Aranda
- Akur
- Quisber
- Arantziaga
- Giandek
- Iñe
- Hassan

sein

LEHENDAKARI AGIRRE, 27 • 946 319 296
seinmoda@hotmail.com

GARANTXE Autoeskola

TEORIA BUKARRAZ ZEIN ERDARAZ

Balmenak: A1, A, B7E #

Lehendakari Agirre 31
31001 04 673 71 32
48142 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@vodafone.net

AKESOLO, S.A.

GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERRITZUAK

Garbe, 29 • Telefonoa: 94 673 60 14 • IGORRE-BIZKAIA

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA

Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak

Juan de Ajuriagerra 1 Behea • 48330 Lemoa
Tlhoa-Faxa 94 6312576 • Mug. 647405115

BIXER TABERNA

Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

axular
kultur etxea

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

indar
instalazio elektrikoak

Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
T. 94 655 47 19
indars@indars.es • www.indars.es

AKEITEGIA

GAY & LORA

IGORRE

Emilio Goitia banatzaile ofiziala

San Miguel

Ardoak • Edariak

94 673 64 02 • Industrialdea E-3 Pabeloia (Igorre)

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN

ZUZENBIDE

ZERGA ETA DOKU KONSTURTAN •
ONDARUN HEGUZINEN
ASIGURUTAN

Sabino Arana, 3 Tlhoa 94 673 71 41 • Faxa 94 673 64 01 • 48142 IGORRE

Jose Luis Corbacho

pintura lanak

Sabino Arana, 3, 3a • 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia • 609-79-40-54

ekin s.a.

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTSU SAREAK
BASERRI ETA BASORRI BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

Iturritz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: c.ekin@telefonica.net

Pinturas Anatia

Javi Morato

Tel. 628 443 992

MENDIA


Mendiko bizikleta martxea Artean hilaren 20an

Erredakzioa

Arteko Kirol, Kultur eta Euskara Taldeak (AKKT), Arteko II. BTT Martxea antolatu dau hilaren 20rako. Urtekerea goizeko 09:00etan izango da Arteko plazan eta ibilbide bi egongo dira aukeran.

Ibilbide luzeak 37 km izango ditu eta 1.432 m.ko desnibela. Partaideak Mandoia eta Bikotz-Ganeko tontorretara igoko dira. Ibilbide laburra egiten dabena, barriz, 25 km eta 980 m.ko desnibela egingo dabe eta Mandoia-igoko dira.

Izena www.akkatartea.com webgunean emon daiteke. Federatuak eta AKKT-eko bazkideentzat 8 eurokoa da, besteentzat 5 eurokoa.



Kartela.

prezioa 5 eurokoa da, besteentzat 8 eurokoa.

MENDIA

Mendizale eguna

Erredakzioa

Lemoako Ganzabal Mendi Taldeak, Igorreko Motxoganeak, Zeanuriko Joko Alaik, Ubideko Amexierrek eta Otxandioko Mirugainek Arratia-Ubide-Otxandioko

XIII. Mendizale eguna antolatu dabe hilaren 28rako. Martxak 14 km ditu eta 650 m.ko desnibela, umeak zein nagusiak parte hartu dagien.

Aurten XIII. urtea da eta Lemoa inguruan izango da. Elizondo-Elorria-Lemoatx-Elizondo ibilbidea egingo dabe parte hartzaileak. Izena aurretik emon behar da, hilaren 25a baino lehen Igorreko kiroldegian edo antolatuten daben mendi taldeetan.

TXIRRINDULARITZEA

Esti Garciak urteko laugarren titulua lortu dau

Erredakzioa

Esti Garciak irabazi eban Aiako Harria mendi bizikleta maratonia urri bigarrenaren 6an. Izan be, proba hori Euskadiko MB Maratoi Openaren azkenengoa izan

zanez, txapelketearen emoitza finkatu ziran Oiartzunen eta txirrindulari lemoztarrak Euskadiko Openeko txapela lortu eban. Holan, Garciak hiru txapelketa irabazi dauz aurten Euskadi mailan, Bizkaiko txapelketaz gainera.

TRONTZEA

Astondoa eta Etxebarria irabazle

Irati Urien

Bizkaiko Trontza Txapelketearen finala jokatu zan 13an, Zeanurin. Hiru bikote egon ziran, bi Arratiakoak eta hirugarrena kanpokoak. Lehenengo Igor Astondoa eta Julen Etxebarriak egin eban, beste bi

parejari bentajaxoa hartuaz. Arkaitz Arana eta Oier Arana beste bikoteagaz oso bardinduta ibili ziran baina azkenean, bigarren postua lortu eban Zeanuriko anaia biak. Nesken kasuan, ez zan txapelketarik egon bikote bat baino ez egoalako; hori dala eta, erlojupeko proba egin eban.

MENDIA

Alex Txikon, Pabi Astondoa eta Karmen txakurra Nafarroa Oinez-en alde

Erredakzioa

Berrogeta bi ardiko artalde batez egin dau Alex Txikon Lemoa eta Urdiain arteko bidea eta lortutako 1.500 euroko trekea emon eutsan San Fermin ikastolako zuzendariari urri bigarrenaren 4an, hiru eguneko bidea egin ostean. Txikonen laguntzaileen artean, Lemoako Josu Madariaga, Zeanuriko Pabi Astondoa eta "Karmen" bere artzain txakurra izan ziran. Desafio honen babesleak, Eguzkilore bitxidendeak, emon zituan 1.500 euroak ikastolarentzat. Aurtengo Nafarroa Oinez hilaren 21ean egingo da San Fermin ikastolaren alde.

"Lemoa eta Urdiain 42 ardiru hartuta abelbidez egiteko erronka

Xabier Galartza pelotariaren familiaren bizimodua gogorazoteko egin dau Txikon. Ardiak hartuta, lurralde epelagoen bila, negua pasatera abelbideetan zehar transhumantzia joaten ziran Urdiaindik Lemoara galartzatarrak" jakinarazo dau Berriak. Galartzatarrak sortu

eben Urdiain eta Lemoaren arteko lotura hau, oraingoan, Alex Txikon barritu dauana Nafarroa Oinez-eri lagunduteko.

Txikonen desafioa ETBk emon eban hilaren 14an, baina barriz ikusteko aukerea egongo da hilaren 16, 17 eta 18an.



Txikon eta laguntzaileak artaldeagaz.

MENDI-LASTERKETEA



Ionut Zinca erdian Hassan Ait Chaou eta Javi Olaberriagaz batera

Kortazarrek eta Zincak irabazi eban "urteko mendi lasterketarik politena"

Lehenengo arratiarrak Eba Urizar dimoztarra eta Ibon Gurtubai igorreztarra izan ziran.

Eguzkilorek sari berezi bana emon eutsen.

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 13an Ionut Zinca aurreikuspenik onenak gauditu ebazan eta sekulako marka ezarri eban "Gorbeia Suzien Eguzkilore Sari Nagusia" mendi-lasterketearen lehenengo edizinoan. Izan be, 02:29:24ko denporan egin eban ibilbidea Gasteizen bizi dan korrikalari errumaniarrak.

Nesketan Oihana Kortazarrek irabazi eban txapela. Aita zeanuriztarra dauka Oihanak eta herria-

gazko loturea erakutsi eban, hurrengo eguneko mahai inguruan be parte hartu eban eta. Holan dala, antolatzaileak berba onak baino ez daukiez korrikalari gipuzkoarrentzat.

Horrezaz gainera, 2012ko Euskal Kopako azken proba izan zanez, Zeanurin izentau ebezan txapelketa honetako irabazle Aitziber Ibarbia eta Hassan Ait Chaou.

Eguraldia alde izan eban zeanuriztarrek, eta ehundaka persona hurreratu ziran lasterketara, marxara zein herriko giroaz disfrute-

tara. Amaieran, bai korrikalariak bai marxistak ibilbidea sano polita izan zala azpimarratu eban: "urteko politena", askoren esanetan. Hori gitxi ez eta, federazinoko ordezkariak, hurreratu ziran hedabideak, eta parte hartzaileak eurak be antolaketearen oso balorazino ona egin eban. Arlo horretan, antolatzaileak herriarren lana nabarmendu gura izan eban; izan be, adierazo ebenez, herriar guztien lanagaitik izan ez balitz, ezinezkoa izango zan holango arakastea.

BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Iñaki Iturriotz Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Mungiaiko kanporaketan

Hilaren 7an abiatu zan Bizkaiko Bertsolari txapelketearen bigarren fasea. Bertan 38 bertsolari lehiatuko dira, tartean Iñaki Iturriotz Arratiako txapelduna. Finala abenduaren 15ean izango da Bilboko Miribillan.

Erredakzioa

Bost kanporaketa eta hiru finalurre jokatu ditue parte hartzean daben bertsolariak. Iñaki Iturriotz Arratiako hilaren 27an Mungiaiko Olalde aretoan izango dau kanporaketea arrastiko 17:30ean. Han, Fredi Paia, Ander Elortegi, Malen Amenabar, Peru Vidal eta Txaber Ormazabalegaz neurtuko da.

Kaporaketok urri bigarrenaren

7an hasi ziran Berriatua eta Balmasedan jokatu zan bigarren hilaren 14an. Hurrengoak, hilaren 27an Mungian; 28an, Sopelan, eta zemendiaren 4an Zornotzan izango dira. Finalurreak, barriz, Basaurin zemendiaren 18an, Durangon 25ean eta Gernikan abenduaren 2an jokatu dira.

Bertsolariak

Udabarian jokatuako eskualdeetako txapeldunak zuzenean



Txapelketearen aurkezpena. Argazkia: Iñigo Fdez de Martikorena.

saikatu dira kanporaketetara. Honeek, Iñaki Iturriotz (Arratia), Aitor Arrutia (Enkarterri), Oihana Bartra (Hego Uribe), Gorka Lazkano (Durangaldea), Gorka Ostolaza (Lea-Artibai), Arrate Illaro (Uribe Kosta), Peru Vidal (Uribe Butroe), eta Julen Erezuma (Busturialdea) dira.

2010eko finalistak zuzenean saikatu dira finalurrekoetara eta honeek dira: Arkaitz Estiballes, Beñat Ugartetxea, Eneko

Abasolo, Etxahun Lekue, Jone Uribe, Miren Amuriza, Onintza Enbeita eta Peio Ormazabal.

Gainera, 2010. urtea baino lehenago finalista izandako Igor Elortzak, Fredi Paia, Iratxe Ibarak eta Ibon Ajuriak be hartuko dabe parte.

Gai jartzaile taldea, Maite Berriozabalek, Zuriñe Iarrituk, Leire Bilbaok, Leire Aurrekoetxeak eta Bernar Mandalunizek osotuten dabe.

IRAKURLE KLUBA

Gabiriaren liburua komentauko dabe gazteenak**Erredakzioa****Gabiriaren liburua.**

Hilaren 23an, Bediako Umeen Irakurle Klubean izango da Bedian bizi dan Julen Gabiria *Nire aita ikusezina da* liburuaren gainean berba egiten irakurleakaz. Umeak saio hori alde aurretik prestatuko dabe, hilaren 18an, hain zuzen be, liburutegian. *Nire aita ikusezina da* liburuak Lezamako Mikel Zarate literatura saria irabazi eban 2011n.

Liburu honen protagonistak Elene eta bere aita dira. Elenek, hamaika urteko neskatok, neba jaiobari bat dauka eta neba jaiotzetik aita guztiz ikusezin bilakatu da mundu guztientzat, beretzat eta amarentzat izan ezik. Kanean doazenean personak agur egiten deutsee nebari eta berari, baina aita ikusi be ez dabe egiten, ezta entzun be.

LIBURUA

Uriagereka zeanuriztarrak bere lehenengo nobelea aurkeztu dau**Erredakzioa**

Atlantis argitaletxeak argitaratu bari dau Alaitz Uriagerekaren *Humo en las venas*, banpiroen generoko nobe-

lea. AnimAEtema gatzizena erabilten dau egileak bere lanetan. Aurkezpena Bilboko Bidebarrieta Liburutegian izan zan uri bigarrenaren 5ean.

Uribeko Iturria baserriko alabea

da Alaitz Uriagereka (Zeanuri, 1983) eta bertan zazpi urte inguru izan zituan arte bizi izan zan. Herri askotan bizi izan da gero eta orain Medina de Pomarren bizi da. Bertako lekuak agertzen dira *Humo en las venas* eleberrian.

Ilustrazioak eta enkarguko koadroak be egiten dauz Uriagerekak. Honeek www.purgatoryum.com bere webgunean ikusi daitezke.



Uriagereka liburua sinatuten.

ikasi eta landu **euskara bizia**

Arratiako AEK

Maila eta ordutegi guztiak
Autoikaskuntza

Agirre Lehendakaria 4, Igorre. 94 631 56 57

aek

Garena ikasteko
para entendemos
pour se comprendre

eman izena
www.aek.org
902 362 294



EUSKAL JAIA

Herri kirolak, antxinako jokoak eta jantzak Areatzan

Gure herriko ohiturak berreskuratzea da Areatzako Euskal Jaia helburua hasiera-hasieratik eta horretan jarraituten dabe aurreko bosgarren edizino honetan.

Erredakzioa

Ondarearen Europako jardunaldien barruan izango da eta aurreko, lehenengo aldiz, egun bi hartuko dauz jaiak. Aurreko landuko diran gaiak, herri kirolak, antxinako jokoak eta jantzak izango dira. Aurreko urteetan legez, billaroztarrak erropa tradizionalak jantziko ditue.

lak, antxinako jokoak eta jantzak izango dira. Aurreko urteetan legez, billaroztarrak erropa tradizionalak jantziko ditue.

Urri bigarrenak 19, barikua
Euskal pelotearen gunean:

17:00etan, parkean tailerrak: narrozko pelotak eta joko desbardinatiko erremintak ezagutu eta egin.

19:00etan, pala partiduak (neska eta mutilen artekoak).

20:00etan, zesta punta partiduak (profesional barriak).

21:30ean, frontoian hasita euskal kantak kalez kale, herritik zehar.

Urri bigarrenak 20, zapatua

11:00etan, jaiaren hasierak. Plazan Arratiako Neska Futbol Taldeari omenaldia (Liga txapelduak).

Areatzako txistulari eta jantziariak. Goizean alde zaharretan azokea: Gorbeiaiko gaztaiak, eztiak, ortuariak, ogia, pastelak, sagardoa, txakolina, taloak...

Artisauak: Zeramika tailerra eta Bur-



Euskal Jaia Jon Artetxek egindako kartela.

din ferratokia.

11:30etik aurrera plazan, herri kirol erakusketea eta antxinako jokoak.

13:00etan, euskal jantzak.

15:00etan, herri bazkaria frontoian

(bartelak tabernetan salgai). Bazkalostean, kanta gunean, kuadrilen arteko kanta txapelketea.

19:00etan, jantza plaza Aiko taldeagaz. Ostean gaitain erreak.

BEGITU 10 URTE

BEGITU Arantzazu, Areatza eta Arteako ekintzetan

Erredakzioa

BEGITU 10 urte, 10 herri, 11 ekintza kanpainak dala-eta, hamabostaldi honetan BEGITU Arantzazuko Argiñatx taldeagaz Urederrara joango da; Areatzan, Jon Sarasuaren berbaldia antolatuko dau "Euskal hedabideak etorkizunean" gaia jorratuteko eta Artean AKKT egunean egongo da alkarte honen jaietan.

Lehenengo ekitaldia Areatzakoa

izango da. Hilaren 17an, arrastiko zazpiretan Sarasuak berbaldia emongo dau Areatzako Udal Areatoan. Areatzako Euskera Batzordearen laguntzeagaz antolatutako ekitaldia da hau. Jon Sarasua pentsalari gipuzkoarra, soziologoa, kazetaria eta bertsolaria be bada. Bere pentsamentu beti kritikoa eta originalak argi apur bat emongo dau, akaso etorkizunak zer ekarri ahal dauan jakiteko.

Arantzazutik Urbasara

"BEGITUK, bere 10. urteurrena Arantzazun be ospatuteko, kontau gura izan dau Arginatx Mendi Taldeagaz. Talde honek oparotasuna eskeintzen deutso herriko aisialdi agendeari, hileroko gitxienez urtekerak bat antolatzen dau eta. Oraingoan Urbasara Urederraren jaiotza ikustera izango da eskursinoa, eta Arratia osoko herritarri zabaltzen deutse deialdia" azaldu dau Cris-

tina Ruiz Zertu Kultur Alkartekoak. Txango hau hilaren 27an izango da.

Artean AKKT eguna

Arteko Kirol, Kultur eta Euskera Taldeak AKKT eguna ospatuko dau lehenengoz eta eurek egon gura izan dau BEGITUK. Baba lehiaketeak, herri bazkariak, umeentzako jolas eta jokoak eta iluntzean erromeriak osotuko dabe jaiaren egitaraua.

Jon Sarasua

Berbaldia
"Euskal hedabideak etorkizunean"
Urri bigarrenaren 17an
19:00 Areatzako Udal Areatoan



begitu 10 urte

Jon Sarasua.

DUNBA

Zeanuriko ikasleak Comenius proiektuan



Zeanuriko eskolako umeak.

Zeanuriko eskolako ikasleak

Comenius proiektua Europa mailan herrialde desbardinatiko eskolen arteko harremanak bultzatuteko urtero egiten dan

proiektu bat da.

Proiektu honen helburua beste kultura eta bizimodu batzuk ezagutzea da.

Zeanuriko eskolak urte bi daroaz proiektu honen inguruan

lanean.

Gure kasuan Europako beste lau herrialdeagaz batera dibersidadea lantzeako talde baten barruan gagoz. Proiektuaren lema "Diversity our most precious treasure", dibersidadea gure altxorrik preziatuena da.

Igaz 6. mailako ikasleak Portugalera joan ziran euren edadeko beste ikasle batzuen etxeetara aste beteko egonaldia egitera.

Aurreko beste lau herrialdeetako ikasleak Zeanurira etortea toketan jakie, eta Portugal, Polonia, Italia eta Frantziako 20 bat ikasle etorriko dira Zeanuriko etxeetara. Astebeteko izango doguz Arratiako eta Bizkaiko txoko desbardinak ezagutzen.

Zeanurira hilaren 22an heldu eta 26ra arte egongo dira bertan. Zeanuriko ikasleak euren pen-friendsak hartuko dabez euren etxeetan eta irakasleak bertako hotel baten egongo dira.

Beraz, aste horretan ekintza bereziak ospatuko dira, Zeanuriko Udala ta herriko erakundeen laguntzeagaz.

Hasteko, astelehenean 22an arrastiz, bisitariak harrera ofiziala egingo jakie, herriko ordezkariak. Martitzenean 23an, eguaztenean 24an eta barikuan 26an konbidauak Gorbeia, Bilbo eta Gazteiz ezagutzeko aukerea izango dabe. Baina egunik aitagarriena eguna izango da. Egun horretan, Euskal Jaia ospatuko da, euskal ohiturak eta tradizioak hareei erakusteko.

Bost eguneko programa interesgarria prestatu dogu eurek egiteko baina egunik garrantzitsuena eguna urriak 25 izango da. Egun horretan bertsolariak, euskal jantzak, pelota partiduak, herri kirolak bazkari herrikoia eta abar egongo dira.

Ikasturte honetan, aurreko 6. mailan gagozan, Zeanuriko ikas-

le batzuk Italiara eta Poloniara joango gara beste aste beteko egonaldi bat egitera.

Gure asmoa oso ondo pase-ta eta gauza barri asko ikastea da.



AGENDEA

URRI BIGARRENAK 17 AREATZA

19:00etan, Jon Sarasuaren berbaldia "Euskal hedabideak etorkizuneari" udal aretoan.

URRI BIGARRENAK 18 BEDIA

17:00etan, Umeen Irakurle Kluba prestatzea. Komeni da egun honetarako Julen Gabiria idazlearen *Nire aita ikusezina da* liburua irakurrita erotea. Liburutegian.

URRI BIGARRENAK 19 AREATZA

17:00etan, parkean tailerrak: narruzko pelotak eta joko desbardineta erremintak. 19:00etatik aurrera, pala eta zesta punta partidukoak. 21:30ean, frontoian hasita euskal kantak kalez kale, herritik zehar.

URRI BIGARRENAK 20 AREATZA

Euskal Jaia. Ikusi egitaraua 13. orrialdean. Mikologia jardunaldia.

12:00etan Areatza, Artea eta Zeanuriko odol emoleai omenalditxoak. Udaletxean.

ARTEA

09:00etan, Arteko II. BTT Martxa. Plazan.

DIMA

17:30ean, Dimako auzo eta taldeen arteko I. Txapelketaren finalak plazan.

IGORRE

XXV. Mugari Bira mendia martxa. 08:30ean ibilbide luzearen urtekera, 09:00etan ibilbide laburraren urtekera kiroldegitik.

URRI BIGARRENAK 21 ZEBERIO

Austari Mendi Taldeak antolatuta Goi-Berriain-Unanu mendia urtekera.

URRI BIGARRENAK 23 BEDIA

19:00etan, Umeen Irakurle Kluba. Julen Gabiria idazlea egongo da *Nire aita ikusezina da* liburuaren gainean berba egiteko.

URRI BIGARRENAK 25 IGORRE

20:00etan Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta Mendi Amesgarriak. Denis Urubikoren proiektzinoa Lasarte Aretan.

URRI BIGARRENAK 26 AREATZA

22:00etan, Menilmanouche Jazz Hirukotearen kontzertua The Quiet Corner-en.

IGORRE

19:30ean, hileko azken barikua, Herriak antolatuta preso eta erreprelatuen aldeko kontzertzinoa.

20:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta Mendi Amesgarriak. Carlos Suarezren proiektzinoa Lasarte Aretan.

URRI BIGARRENAK 27 ARANTZAZU

Argiñatx Mendi Taldeak antolatuta Urederrera urtekera.

AREATZA

20:00etan, Oktoberfest jaia gazte txean.

ARTEA

AKKT Eguna. 10:00etan, baba txapelketea;

14:00etan, herri bazkaria; 16:00etan, umeentzako jolasak eta 19:00etan, jantzaldia.

IGORRE

22:00etan, zinea *Dragoi ehiztariak* Lasarte Aretan.

UBIDE / ZEANURI

10:00etan, Larreen Mankomunidadearen Zeharkaldia. Zeanuriko plazan.

URRI BIGARRENAK 28 ARTEA

10:00etan, plazan gaztainak batzean mendira joateko.

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Las aventuras de Tadeo Jones*. 19:30ean, zinea *Dragoi ehiztariak* Lasarte Aretan.

ARRATIA

Arratia-Otxandioko XIII. Mendizale Eguna.

19:00etan, Argia emonaldia. Dokumentala Elizondoko Kultur gunean.

URRI BIGARRENAK 29 IGORRE

20:00etan, "Hiri Debekatuaren Mapa" erakusketa eta bisita gidatuen inaugurazio ekitaldia.

ARTE EDERRETAKO Urriaren ERAKUSKETA 5etik 24ra

SANDRA RILOVA
TANIA QUINDÓS
JESÚS CORTIÑAS
MARTA RAMÍREZ
SANTOS LASERNA
IRATI SANTOS
INORIZA
MARÍA ELORZA
LAURA CHICO
ALBERTO DIEZ
HAYDÉ NEGRO
(DETUXO9ONE)
LEO BURGE
IÑIGO GARATU



IGORRE (BIZKAIA)

IGORRE (BIZKAIA)



EHU-UPVko ikasleen erakusketa kolektiboa IKEn

EHUko Arte Ederretako ikasleen lanak dagoz ikusgai Igorreko Kultur Etxeko Erakusketa Gelan hilaren 24ra arte. Egileak diziplina eta estilo desbardineta lanak erakusten dabaz erakusketa interesgarri honetan.

Erakusketak zati bi daukaz. Lehenengoak Iñigo Garatu ikasleak 2009 eta 2012 urteen artean sortutako lana biltzean dau. Bertan, bideoa, pintura, eskultura, argazkigintza eta grabadua batzean dira. Bigarren zatian, barriz, hainbat artistaren obrak erakusten dira. Eta artista horreen artean, aitzatekoak dira Sandra Rilova, Arteshop Bilbao 2012ko irabazlea, Tania Quindos eta Jesus Cortiñas.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALGAI

Altzarien eskeintza berezia, prezio sano bajuak likidazioagaitik. Zatoz ikustera Elexalde 10 behe (Igorre).

DANERIK

ETXEA ALOKATU GURA DOGU

Alokatzen dan baserri edo terrenoa daukan etxe baten bila gabizen bikotea gara. Telefonoa (Zuriñe: 656 739 952).

BASERRIA ALOKATU GURA DOGU

Alokairuan dagoan baserri edo etxea gura dogun bikote bi gara. 685 707 176 Eider.

GARBIKETAK

Etxeak, portaleak, bulegoak... garbitan dodaz. Etxeko beharrak egin eta adinekoak be zaintzean dodaz. Telefonoa 666 238 081 (Cristina).

UMEAK JAGOTEN DODAZ

Arrastiko ordutegian umeak jagon edo klase partikularrak emoteko prest nago. Kotxeduna. Interesdunak deitu

zenbaki honetara 600 759 434 (Naiara) Telefonoa.

LEKU BILA

Txakurrak eukiteko leku txiki baten bila nabil (Iker 680 518 473).

UMEEN ZAINZAK

Umeak esperientzia daukan neska bat zuen seme-alabak jagoteko prest dago. kotxeduna (Pili 686 728 843).

KLASE PARTIKULARRAK

Euskal Filologian eta Haur Hezkuntzan titulauako neska gaztea naz eta klase partikularrak emoten dodaz. Esperientziaduna. 652 744 411 (Itziar).

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Dragoi ehiztariak* filmarako.

Olatz Elejabarrieta (Lemoa)
Argiñe Larrea (Dima)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Las aventuras de Tadeo Jones* filmarako.

Alize Gurtubai (Igorre)
Borja Estankona (Artea)




Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 10 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Guraria. Boroa. 2.- Apurtu. Selenioa.
3.- Berrogeta hamar erromatar.
Eskuluze. 4.- Zintzo. Romuloren anaia.
5.- Birritan, Afrikako tanbor antzekoa
izentetako onomatopeia. Tik...,
erlojuaren hotsa. 6.- Uranioa. Antxina
Nafarroan bizi zan erraza bat. 7.- Fruta
bat. Ospa, alde. 8.- Errenta. Bokala.
9.- Gelditu.

GOITIK BEHERA

1.- Ergeldu. Zilarra. 2.- Errepetiduta,
kontuz. Sodioa. (Atz.) Eguzki.
3.- Lagundu! Oker. 4.- Txispa. Goian
dan tokira. 5.- Bokala. Txikieria,
huskeria. Astatoa. 6.- Barruntau. Bokala.
7.- Berotzearen ekintza eta ondorioa.



Topau eleiza baten egon leitekezan zazpi gauzaren izenak.

O	D	O	R	T	A	L	I	Z	E
K	A	U	T	I	P	L	U	P	S
A	S	K	O	T	A	U	P	E	O
R	I	U	A	E	Z	G	O	L	A
A	M	R	U	L	P	E	B	A	T
M	A	U	K	A	I	T	U	R	O
I	D	T	N	U	R	Z	G	E	N
K	A	Z	A	R	O	N	A	R	I
A	F	E	B	E	N	A	Z	E	L
L	O	A	R	E	D	I	M	A	A
E	M	I	A	J	O	A	U	T	Z
G	O	R	K	E	B	A	B	U	R
T	X	A	L	A	U	T	N	A	S
X	A	S	O	K	H	E	I	D	F
I	N	T	S	E	N	T	S	U	A

Kali Yuga

Ait ziber



AKI MI KO

begitu ¹⁰urte
arratia ubide zeberio

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburetan pintxo bereziak

ARRATIKO ESKORRAK

arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak - Aire zurgintza zentralizatuak
Suteak kontrolatzeko zerbidoak eta mantentze lanak

Igorriko Industriak, Pab. 07
Tel.Fax: 94 673 62 76
619 736 616
48143 Igore Bokata

Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri ikastetxeak 2 urtetik 10ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoa

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igore

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igore

Areartzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrazko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikloak

ALAITZ URIAGEREKA

"Banpiroak bizitzaren gainean berba egiteko metafora moduan erabilten dodaz"

Humo en las venas da Alaitz Uriagerekaren (Zeanuri, 1983) lehenengo nobelea. Egileak AnimAEterna ezizenagaz sinatuten dau banpiroen generoko nobela hau eta Anne Rice-ren eragina aitortzen dau. Banpiroen gaineko nobela bat baino gehiago, zahartzarora eta bizitzaren joanaren gaineko hausnarketea dala dino Uriagerekak.

Erredakzinoa

Zein da liburuaren argudioa?

Bere bizitzaren azkenetan agure bat banpiro bihurtzen da. Biziteaz nekatuta dagoanean bihurtzen da banpiro. "Itzalen munduan" jaiobarria da eta izakera bi horreek gobernau beharko ditu.

Zeintzuk dira errespetatu dozuzan zineak eta literaturak ezarritako banpiroen generoko arauak?

Arau batzuk errespetatu dodaz eta beste batzuk asmatu dodaz. Dana dala, antxinako folkloerari fidela izan gura izan deusat eta horeek dira errespetatu dodazan arauak: odolaren beharra; eguzkiak egiten dauan kaltea eta hilezkortasuna, hain zuzen be, baina hau ez da saihestezina, bizitza artifiziala da, odolaz elikatzen dana, eta bizitza honegaz amaitzeko moduak dagoz. Nire

banpiroak euren buruaz beste egin daikie, desagertzea ebatzi ahal dabe. Errespetatu dot, baita be, fisikoki banpiro bihurtzeko momentuan daukien itxurea betikoa izatea; hau da, 15 urte gaz hil eta banpiro bihurtzen danak, eternidade osoan 15 urteko baten itxurea eukiko dau.

Baina beste gauza batzuk asmatu egin dodaz.

Zelan bururatu jatzun nobela hau idaztea?

2008an izan zan. Ni une haretan oso inspirauta nengon eta idea asko bururatzen jatazan. Idea lar neukazan. Dana, interneteko chat baten sartu nintzanean hasi zan. Rol jokoen chat bat zan. Orduak pasetan genduzan bakotxak personaje bat egiten. Istorioetan bukaeraraino sartzean ginan, mingarria izateraino askotan. Oso literarioa zan, ze alkarren benetako izenak be ez genkizan, dana

fikzinoa zan, baina emozino handikoa. Bigarren bizitza bat lez.

Han neska bat ezagutu neban eta biok hasi ginan sano istorio bihurri eta konplejuak egiten. Bera chat-ean ez egoanean, ideak idazten hasi nintzan eta gero horregaz liburu hau egin neban.

Badago nobela honetan zure alter ego izan daiteken personajerik?

Bai. Egoitz izeneko mutila.

Eta zein izan zan sorrerako idea?

Neure buruari itaundu neutsan ea zergaitik banpiro guztiak gazteak eta ederrak ziran. Emoten dau bizitzako momenturik onean emon jakiela hilezkortasuna danai. Eta, bueno, banpiro izatearen zailtasunak bizi dabez, baina gizon edo andra gazte eta ederrak dira, edonor seduzidu daikienak, eta zahartzarori eta hondatze fisikoari inoz aurre egin ez deusienak. Eta nik aztertu gura neban zer izango litzateken hori edadeko batentzat.

Idea hori nahiko barritzailea da. Genero honetan, umeak aztertu egin da, Anne Rice-k egin dau hori, baina edadekoak ez.

Non dago kokatuta eta zergaitik?

Idazten hasi nintzanean, nire lehenengo idea izan zan Louissiana-n (Estadu Batuak) kokatzea. Anne Rice da gehien gustetan jatan idazlea eta honek genero banpiriko modernoa hor koka-

Nobelearen zati bat

Bilbon gertatzen da eta

beste bat Medina de

Pomarren

tzen dau. Orduan danok lotzean doguz banpiroak padurakaz, jazz-agaz, kaleetako magiagaz... Anne Riceri esker banpiroak Estadu Batuetako hegoaldeagaz lotzean dira.

Horregaitik nire lehenengo idea izan zan han kokatzea *Humo en las venas*. Baina, gero pentsau neban Anne Rice-k banpiroak han kokatu zituala, han bizi zalako eta neuk ondo ezagutzen dodan leku baten kokatzea pentsau neban, zehaztasun txikiak emoteko eta sinesgarriagoa egiteko. Liburu honetan gertatzen diran burubakokeriak, geure inguruan gertatu daitekezala sensazioa emoteko. Holan, nobelearen zati bat Bilbon gertatzen da eta beste bat Medina de Pomarren. Beste leku batzuk, baina, asmatu egin dodaz.

Zeintzuk dira zure idazkeran eragina izan daben idazleak?

Behin eta barriro aitatu dot Anne Rice, eta horixe izan da inportanteena, baina honegaz batera nire idazle faboritua Edgar Allan Poe da. Hamahiru urte inguru neukazanean hasi nintzan haren

narrazio eta poemak irakurten eta beti daukadaz presente. Esaterako, Poek eraikuntzak personajeen egoera animikoaren alegoria moduan erabilten zituan eta hori egiten dot nik be neure liburuan. Poe-ren idea bat be hartu dot eta hauxe da: antxinako arbasoen pekatuak ondorengoanaino heldu daitekezala eta honeen bizimodua hondatu. Eraginen artean, aitatu behar dot, baita be, Javier Garcia Sanchez-en *Ella Dracula* nobelea. Protagonistearen pentsakerea egiteko ezinbestekoa izan da.

Azkenik, Joseph Sheridan-en *Carmilla* nobela laburra be aitatu behar dot. Jente askok pentsetan dau Bram Stoker-en *Dracula* dala nobela banpirikoaren sorrerea eta nik *Carmilla* ipiniko neuke. Sano polita da.

Baina Anne Rice da gehien gustetan jatan idazlea eta ha izan zan idazten hasteko arrazoia. Anne Riceren liburuak nire ustez, ez dira banpiro liburuak, banpiroak metaforak dira, bizitzaren gainean eta muga etikoen inguruan hausnarketea egiteko atxakia.



arratiako merkatarien elkartea

www.arratia-merkatariak.com



PUZGARRIAK
10:30etan



Urriaren 20an
IGORREN - PARKING 105/GARBE

ERROMERIA

18:30etan

PINTXOAK
19:00etan

